

ITSAS FATXADA ETA MONPASEKO PASABIDEA

Joan den legealdian, Donostiako Monpas aldean pasealeku-pasabide bat egiteko kontu-sail batzuk jaso ziren Estatuko Aurrekontu Orokorretan. Lizitatu eta esleitu ere egin zen proiektua.

Hala ere, joan den legealdiko Udal Gobernuari ez zitzaion interes orokorrekoa iruditu pasealeku hori, eta, azkenean, galdu egin zen gure hirirako aurreikusia zegoen inbertsioa.

Proiektu horrekin, Donostiako itsas fatxada burutuko da: Eduardo Chillida pasealekuan hasi, alderik mendebaldekoenean, Pasealeku Berria zeharkatu, Urgull mendiaren atzean, eta, azkenik, ekialdeko muturrean amaitu.

Proiektu horrek kostaldeko horma bat egitea eragotzi zuen; hain zuzen, haren helburua zen Uliako mendiko hegalarren gainean egitea pasealekua, irtenbide ez-inbaditzaile bat emanaz alde horri.

Udalbatza hau behin baino gehiagotan eta hainbat epealditan agertu da Uliako itsas fatxada burutzearen alde. Kontuan hartuta orain ari direla 2018rako Estatuko Aurrekontu Orokorrek lantzen, hauxe da EAJ eta PSE-EE udal taldeek aurkezten duten

MOZIO ARRUNTA

1. Donostiako Udalbatzak Espainiako Gobernuari eskatzen dio sar dezala Estatuko Aurrekontu Orokorren hurrengo proiektuan Monpaseko pasabide proiektua burutzeko behar den kontu-saila.

Donostia, 2017ko uztailaren 4a

Izpta.: Miren Azkarate Villar,
EAJ taldearen bozeramailea.
bozeramailea.

Sin. Ernesto Gasco Gonzalo,
PSE-EE taldearen